



Alternatibara gomita, igandean, 2013ko urriaren 6an

Herri eta Herri Elkargoen mailako Politika aintzindariak ingurumenaren, klima eta energiaren arloan

Gomitatzen zaituztegu Alternatiba 2013, aternatiben herrixkarat etortzerat, igandean, urriaren 6an, Baionarat, eta bertan «Herri eta lurralde mailako alternatiben» esparruari bisita baten egiterat. Gune hori bereziki landua izan da auzapezentzat, herriko etxeetako kontseilari eta teknikarientzat, bai eta ere datozen herriko etxeetako hauteskondeetako hautagaientzat. Baionako Fakultatearen egoitzan kokatuko da (Campus de la Nive, 8 allée des Platanes etorbidean, San Andres auzoan).

Bertan, antolaketa, ekipamendu eta politika arloetan klima, ingurumena eta jendeen ongi izaitza errespetatzen dituzten herri eta herri elkargo mailako esperientzia berritzaileak aurkitzen ahalko dituzue. Ber maneran, eredu horien sustatzaile eta pratikan emaleak diren arduradunekin hitz egiten ahalko duzue (kolore politiko guzietako elkargoetako hautetsi edo teknikariek, pertsona berezituak, etab.).

Gune hortan atxemanen dituzue :

-> Informazio eta aholku permanentziak, desmarxa eko-arduratsu eta berritzaileei buruz: hirigintza, garraio, energia, eraikuntza, hondarkin, laborantza, oihan, ur, berdegune, ekonomia, erosketa publiko eta kontsumo arduratsuen arloetan.

-> Mintzaldi berezituak

11H00 -12H00 : Energia arloan positibo diren lurraldeak: trantsizio energetikoa plantan emaiten duten herriak,



Peggy Kançal, Akitaniako Eskualde Kontseilariarekin,



Patrick Sabin, Escource, 616 biztanleko herriko auzapezarekin, Haute Lande-eko herri elkargoan energia berritagarien garapenez arduratzen dena (energia tokian ekoiztearen garatzeaz eta energiaren ekoizteko behar den antolaketaren aparatuaren tokiko finantzaketaren kontrolatzeaz, hortik ateratzen diren finantza etekinak berriz inbertsio gisa erabiliz),



Marc Théry, lurralde eta enpresentzat, energia estrategian aholkulari, eta, Mené (Côtes-d'Armor-eko 6500 biztanleko herri





elkargoan, auto-askitasun energetiko politika baten bidez tokiko garapen ekonomikoa sustatzen duena, Bretañako eskualde pobreenetariko batean metanizazioa, berotasun sareak, energia ekonomia, eoliko parte hartzailea plantan emanez) herri elkargoan aintzinerat emaiten dituzten proiektuentzat ingeniaria.

14H00-15H00 : Mahain ingurua hirigintza eta trantsizio energetikoa (hiri eremuen hedatzearen aurkako borroka, eko-auzoak, garraioak...)



Gérard Poujade, ingeniaria, Sequestre (1600 biztanle) herriko auzapeza, (2000 biztanle-petik diren herrietan lehena eko-auzo bat eta Agenda 21 bat plantan eman dituen, uraren fakturatzeko eskala pixkanakako edo progresibo bat plantan eman duena, eskaintza-eskaeretan tokiko ekoizpenei lehentasuna emaiten duena, garraio eta zaborraren arloan politika berriztagarriak dituen, egoitzentzat berritze termikoaren arloan politika berezia daramana, baratze partekatuak dituen, etab.),



Peio Etcheverry-Aintchart, Donibane Lohitzuneko herriko etxeko hautetsia, hirigintza eta antolaketa iraunkorra,



Marion Richard, RAC-F-entzat Klima & Lurraldeak arloaren arduraduna, «Hiri hedatzea eta aldaketa klimatikoak, egoeraren azterketa eta proposamenak» txostenaren koordinatzailea.

-> Dokumentazio berezitua, erakusketak,

-> Klima-energiar Bizi!k Herriko Etxeentzat egin duen tresna-kutxa.

Harrera, informazio eta aholku permanentziak besteak beste ondoko pertsonetaz segurtatuak izanen dira :

Martine Bisauta, garapen iraukorraren Baionako auzapezordea

Peio Etcheverry-Aintchart, herriko hautetsia, hirigintza eta antolaketa iraunkorra

Jakoba Errekondo, paisaia antolatzaile, «Zerain Dezagun Fundazioa»ren zuzendaria

Patrick Fifre, Pirinio Atlantikoak departamenduko Arkitektura, Hirigintza eta Ingurumen arloko Aholkularitza-ko edo CAUE-ko zuzendaria

Natalie Franca, vCG 64 Kontseilu Orokorreko Lehendakari ordea eta bertako Agenda 21aren arduraduna

Maite Gonzalez, Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluan Klima-Energia arloaren arduraduna.





Mathieu Iriart, Bizil-ren herri tresna kutxa-ren aurkezpena

Peggy Kançal, Eskualde Kontseiluko hautetsia, Akitaniako Klima Planoaren ordezkaria

Lorelei Limousin, Réseau Action Climat-n, Garraioa, baseri edo landa-gunetan eta hiri inguruetan arloaren arduraduna.

Cyrille Marlin, arkitektoa dplg, paisaia antolatzailea dplg, doktorea (EHESS Paris). Cyrille Marlin-ek Bordaleko arkitektura eta paisaia eskolan metodo parte hartzaileak erakasten ditu. Proposatutak diren antolaketa prozesuek landareekin harreman sinple eta erabilgarri bat konduan hartzen dute (jasangarritasuna, bio-aniztasuna, mikro-klima,...). Gehienetan medioen arloan zuhertasuna eta antolaketa publiko klasikotik kanpo garatuak diren beste eragiteko molde batzu aintzinean emaiten ditu..

Pello Otxandiano Campo, Otxandio, Bizkaiako 1300 biztanleko herriko hautetsia, hirigintza iraukorraz arduradun..

Gerard Poujade, ingeniaria, Sequestre (Tarn) herriko auzapeza, Albiko hirigunearen lehendakiordea, hainbat liburu-ren idazlea, besteak beste «Eko-auzo bat 2000 biztanle baino guttiagoko herri batean».

Marion Richard, RAC-F-entzat Klima & Lurraldeak arloaren arduraduna, «Hiri hedatzea eta aldaketa klimatikoak, egoeraren azterketa eta proposamenak» txostenaren koordinatzailea.

Patrick Sabin, Escource herriko auzapeza eta CLER - Energia Berriztagarriak Lotura batzorde -kidea. Energia berriztagarrien ekoizpenen inguruko proiektuen herri eta herri elkargo mailan finantzatzeko txostenen osatzean berezitua.

Marc Théry, Polytechnique-eko ingeniaria, Rowenta enpresako Zuzendari Orokor ohia, lurralde eta enpresentzat, estrategia energetikoetan aholkularia, Ménéco (Bretainia erdialdea) herri elkargoaren desmartzaren ingeniaria.

Santi Uribe Laka, Otxandio, Bizkaiako 1300 biztanleko herriko auzapeza, energia berriztagarrien gaian berezitua.

Denis Voisin, Mugikortasuna eta Fiskalitatea arloaren arduradun Nicolas Hulot, Naturarentzat eta Gizonarentzat Fundazioaren baitan. Garraioak landa-gunetan eta hiri inguruetan.

Etab.

Alternatiba est organisé avec le soutien et le partenariat de :





ALTERNATIBA

LES ALTERNATIVES ALTERNATIBAK

- 1 Climat / Klima
- 2 Transport et mobilité / Garraioa eta mugikortasuna
- 3 Alternatives municipales et territoriales / Lurraldeetako eta herrietako alternatibak
- 4 Energie / Energia
- 5 Eco-habitat / Eko-etxebizitza
- 6 Enfants et éducation à l'environnement / Ingurumenari sentsibilizazio gunea
- 7 Economie soutenable / Ekonomia jasangarria
- 8 Finance responsable / Finantza arduratsua
- 9 Consommation responsable / Kontsumo arduratsua
- 10 Recyclage et déchets / Hondarkin eta birziklatze esparrua
- 11 Solidarité et partage / Elkar laguntza, partekatze, eta elkartasuna
- 12 Biens communs et culture / Oren ontasunak eta kultura
- 13 Eau / Ura
- 14 Agriculture et alimentation / Laborantza eta elikadura
- 15 Relocalisation de l'économie / Ekonomialaren ber-tokiratzea

Le Village Alternatiba se tiendra même en cas de mauvais temps. Repli assuré dans de nombreuses salles, à la fac et sous chapiteaux.

Euria baldin bada, Alternatiba Herria hala ere egingen da, Fakultatean, karpa eta Baiona tipiko egoitzak ugarietan kokatuz.

MARCHÉ PAYSAN
DES 9H00
ETXE-MOZKIN MERKATUA
9:00etatik goiti

MUSÉE BASQUE EUSKAL MUSEOA (ENTRÉE GRATUITE) (SARTZA LIBREDA)

ZONE DE TROC TRUKE GUNEA

PATXOKI

BAR SANKARA OSTATUA

LOCAL AGER GELA
+ APPARTEMENT TÉMOIN ÉCO-RESPONSABLE
+ APARTAMENDU EKO-ARDURATSUA IKUSCAI

LOCAL EUSKO IKASKUNTZA EGOITZA

ESPACE ENFANTS ET ÉDUCATION À L'ENVIRONNEMENT HAURREN ETA INGURUMENARI BURUZKO HEZKUNTZAREN XOKOA

MOUSSEROLLES CAMPING GRATUIT
+ TOILETTES SÈCHES
+ AKANPALEKUA URRIRIK
+ KOMUN IDORRAK

Legend:

- 1 Espaces thématiques Esparru tematikoak
- 2 Point accueil info Harrera-informazio gunea
- 3 Espace bénévoles Laguntzaileen xokoa
- 4 Chapiteau Place Paul Bert Paul Bert plazako karpa
- 5 Conférences - tables rondes Mintzaldak - mahai-inguruak
- 6 Repas Apairua
- 7 Buvette Ostatuak
- 8 Scènes concerts Eszenatokiak, kontzertuak
- 9 Jeux pour enfants Haurrendako jokoak
- 10 Projections Proiekzioak
- 11 Camping Akanpalekua
- 12 Toiletttes sèches Komun idorrak
- 13 Bureau de change monnaie locale EUSKO Euskoen aldagunea
- 14 Librairie Liburutegia
- 15 Poste de secours SOSpen tokia

** Pour aider à financer la journée, les buvettes Alternatiba + Sandwich, plats, frites, crêpes, talos, arroltze ta xingar à partir de 9h du matin, toute la journée.*

** Egunaren finantzatzeko laguntzeko, Alternatiba edaritegiak + Ogitarkeoak, platak, fritak, matahamiak, taloak, arroltze eta xingarra, goizeko 9:00etatik, egun osoan zehar.*

www.alternatiba.bizimugi.eu
facebook.com/Alternatiba.Baiona
[#alternatiba2013](https://twitter.com/alternatiba2013)

Le village des alternatives
Alternatiben herrixka



6/1/2013

JUNTOS CONSTRUYAMOS UN MUNDO MEJOR, RESPONDIENDO AL DESAFIO CLIMATICO !
 ENSEMBLE, CONSTRUISONS UN MONDE MEILLEUR EN RELEVANT LE DÉFI CLIMATIQUE !
 LET'S BUILD, BETTER WORLD UNDER THE CLIMATE CHALLENGE !
 ELGARREKIN, MUNDO HOBE BAT ERAIKI DEZAGUN, ERRONKA KLIMATIKOARI AURRE EGINEZ !
 جميعا من أجل بناء عالم أفضل برفع التحدي المناخي

BAYONNE - BAIONA

